



BERGARA

Udal aldizkaria | 03 zenbakia | 2008ko iraila

GAI NAGUSIA >04

Gazteria arloa da Bergarako Udalaren erronka berria

UDAL ARTXIBOAK SINATUA >09

Gasolindegiak, Bergarako historiaren lekuko

KULTURA >16

Guztia prest txotxongiloen nazioarteko mostrarako

BASERRI AUZOAK >18

Baserri bideak konponduko ditu Udalak Uberan eta Angiozarren



ELKARTEEN TXOKOA >08

**BARRIKA
JOTZAILEEN
EMAKUMEEN
KONPAINIA**



Zenbaki honetan...

03 EDITORIALA

04 GAI NAGUSIA • Gazteria arloa da erronka berria ■



06 HERRITARRAK KAZETARI

06 GALDERAK

07 IRITZIAK ■



08 GURE BERGARA

08 ELKARTEEN TXOKOA • Barrika jotzaileen konpainia ■

09 UDAL ARTXIBOAK SINATUA • Gasolindegia gogoan



10 UDALA

10 PLANIFIKAZIO ESTRATEGIKOA / Gehigarria /

14 HIRIGINTZA

15 KIROLA

16 KULTURA

17 GIZARTEA / INGURUMENA

18 BASERRI AUZOAK / EUSKARA ■

19 UDALBATZARRAK



BERGARAKO UDALA

San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel: 943 77 91 00
Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net

TELEFONO INTERESGARRIAK

Agorrosin	943 77 70 95	Kanposantua	943 76 27 81
Alkatetza	943 77 91 01	Kirolak	943 77 91 67
Angiozarreko liburutegia	943 76 16 19	Kontuhartzaitetza-Hazienda	943 77 91 64
Artxiboa	943 77 91 32	Kultura	943 77 91 58
Enpresa komitea	943 77 91 73	Labegaraietako kiroldegia	943 76 56 41
Euskaltegia	943 76 44 53	Liburutegia/Kultura Etxea	943 77 91 62
Euskara	943 77 91 66	Mizpirualde egoitza	943 76 13 68
Gizarte Ongizatea	943 77 91 65	Obrak eta Zerbitzuak/Udal biltegia	943 77 91 52
Hirigintza eta ingurumena	943 77 91 68	Ondare artistikoa/museologoa	943 77 91 62
Idazkaritza	943 77 91 00	Osintxuko liburutegia	943 76 23 76
Igerilekuak	943 76 20 51	Udaltzaingoa	943 77 91 06
Informatika	943 77 91 37		



Planifikazioa etorkizuneko giltza

UDAL GOBERNU TALDEA



Ekainaren bueltan urte bateko agintaldiaren balorazioa egiteko eskatu zigutenean honako kontzeptu hauek nabarmendu genituen: alde batetik, urte intentsua izan dela pasa den hau eta bestetik, Udalaren egoera bertatik bertara ezagututa PLANIFIKAZIO FALTA izugarria ikusi dugula.

Udal Gobernu honen iritzian ezer ezin da gobernatu aurrez planifikazio prozesu bat egiten ez bada. Jakina da enpresa, erakunde eta elkarte ia guztiek (guztiek esango genuke absolutuegia ez balitz) daukela beraien hausnarketa estrategikoa eta beraien epe ertaineko planifikazioa.

Hau horrela izanik nola goberna daiteke 14.800 biztanle dituen herria planifikazio egoera egin gabe? Buruhauste

“

Egunerokoari muzin egin gabe burua altxatu eta etorkizunera begiratzeko parada emango digun hausnarketa egin nahi dugu

”

dezente eman digun lana izan dela esango genuke. Martxoan hasi eta urriaren erdialdera bukatu nahi dugun prozesua abian dago, egunerokoari muzin egin gabe burua altxatu eta etorkizunera begiratzeko parada emango digun hausnarketa egin nahi dugu. Agintaldi honetarako helburuak, estrategiak eta lan-ildoak markatzen dihardugu politikariok eta teknikariok. Abiapuntua dugu bergarrok babestu zenituzten programa politikoetan eta pasa den urtean sozializatu genuen kultur proposamenean. Lana guztiz bukatu gabe badaukagu ere, aldizkari honen erdialdean markatu ditugun helburuak azaldu nahi dizkiegu bergarrei. Egun, helburu horiek abian jartzeko eman beharreko urratsak antolatzen ari gara.

Gure lanean bateragarri egin behar ditugu egunerokoa eta

planifikazioa, eta ildo horretatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen iradokizun, eskaera, kexa eta ekarpenak bideratu dituzuen herritarrei, elkarteei eta eragileei. Norbere ingurua eta alorra inork baino hobeto ezagutzen duzue eta zuengandik ideia interesgarri asko eta onak jaso ditugula esan behar dizuegu.

Ez ditugu guztiak konpartitzen, beste hainbat ezin dira gauzatu arrazoi desberdinak direla medio, baina guztiak aztertu ditugu eta ahal den neurrian egikaritu ere bai. Beraz, horrela segi dezazuen eskatu nahi dizuegu. Bergara guztion artean hobetzen badugu, hobekuntza hobea izango baita. Non gauden badakizue, nortzuk garen goiko argazkian ageri da eta Udaleko atek parez pare dituzue zabalik. Zuen proposamenen zain gaude.

MOTZEAN

Bergarako Udal Aldizkariaren hirugarren zenbakian gazteak eta emakumeak protagonista

Esku artean duzuna Bergarako Udal Aldizkariaren hirugarren zenbakia da, San Martin jaien ostekoa. Igaro dira festak eta uda. Udazkenean sartu gara eta urtaro berriarekin batera iritsiko da aurten Nazioarteko Helduentzako Txotxongiloen Mostra. Kalitatezko kultura eskaintza izango dugu Berga-

rako kaleetan eta areto zein tabernetan. Gainera, Zabalo-tegi aretoa ere inauguratuko da laster. Hain justu ere, Txotxongiloen Mostraren zenbait emandaldi bertan izango dira. Udal Aldizkariaren portadan San Martinetako danborradaren barrika jotzaileen konpainiako emakumeak dituzue. Bigarren urtez

desfilatu dute danborradan. Zorionak. Zenbaki honetan, gainera, haur, nerabe eta gazteak ere badira protagonista. Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute gazteria plana abian jartzeko. Hiru urteko epean gazteen beharrei erantzunongo dieten politikak definituta izando ditu Udalak.



GAZTERIA ARLOA DA ERRONKA BERRIA



Bergarako haur eta nerabeak San Martinetan.

Bergarako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzak hitzarmena sinatu dute datozen hiru urteotan plan bat burutzeko. Lehenik eta behin, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin du gazteriararen inguruko diagnostia, jakiteko zeintzuk diren herriko haur, nerabe eta gazteen ohitura eta jokamoldeak. Aurrezterketaren ondoren, gazte eta nerabeen politikak definituko ditu Bergarako Udalak eta gazteria arloa sortuko du. "Orain arte ahaztuta egon den arloari garrantzia eman nahi diogu eta horretarako oso inportantea da plana garatzea. Izan ere, konturatu gara Bergarako Udalak Gazteria Zerbitzu errealekez duela". Enara Minguez Udaleko Gazteria arduradunaren iritziz, herriko haur, nerabe eta gazteen heziera prozesua errazteko zerbitzuak garatu behar dira. Alegia, informazioan, aisialdi hezitzailean, sustapenean eta emanzipazio programetan oinarritutako eskaintza eta zerbitzuak landu behar dira Udala agentzien esanetan.

GALDEKETA EGIN DA DIAGNOSIA DEFINITZEKO

Gipuzkoako Foru Aldundiak herriko nerabe, haur eta gazteei zein haien gurasoei eta beste eragile batzuei

Gazteria arloa garatzeko proiektuak hiru urteko iraupena izango du: 2008-2011 epean gauzatu da eta gazteria politikak zehazteko balioko du.

galdeketa egin die diagnostia egiteko. "Gazteek eskatzen dituzte, ekipamendu berriak, gaztelekuak, gaztetxearen egokitzapena, beste lokal batzuk, autobus zerbitzu hobeak eta alokairu sozial eta etxebizitzak lortzeko laguntzak. Gurasoek, berriz, gazteekin elkar komunikatzeko kanalak nahi dituzte eta eskaintza hezitzaile antolatu bat", hori da lehengo galdeketa onorioetako bat.

AURREKONTUA ORAINDIK EZ DUTE ZEHAZTU

Nahiz eta oraindik gazteria arloa garatzeko eta definitzeko planaren aurrekontua zehaztu gabe egon, Udalak aurreikusten du datozen hiru urteotan, guztira 150 mila euro inguru gastatzea, baina zehaztasun ugari egin beharko dira. Hain justu ere,

Gazteria arloa egituratu eta garatu nahi du Bergarako Udalak datozen hiru urteotan. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean proiektu bat abiarazi du. Udalaren asmoa da herriko haur, nerabe eta gazteen beharrei berme osoz erantzutea, informazioa eskainiz eta aisialdi programa hezitzaileak martxan jarritz. Era berean, zenbait eskaintza eta zerbitzu konkretu garatuko ditu Bergarako Udalak, eta gazteekin zuzenean lan egiteko kanalak irekiko ditu.



Eragin eremua:
0-30 urte bitarteko bergararrak
Plana garatzeko iraupena:
3 urte, 2008/2011
Aurrekontua:
Zehaztu gabe
Asmo nagusiak:
Gazteria politikak definitu eta Bergarako haur, nerabe eta gazteei erantzun egokiak bermatzeko proiektua garatu.

Gazteria arloa garatzeko plana.



Bergarako Udalak oraingo urtean, guztira ia 17 mila euroko partida bideratu du, besteak beste, plana abiarazteko. Horri gaineratu behar zaio 2008an Foru Aldundiak gehiezin 25.000 euro emango dizkiola Udalari. "Plana oso garrantzitsua da guretzat. Erroka berria da. Gazteria arloak merezi du guztion ahalegina eta inplikazioa. Aurrekontuei dagokienez, aurrerago zehaztu behar ko dira partida guztiak". Enara Minguezek gaineratu duenez: "Garrantzitsuena da Bergarako Udalak gazteria arloa lantzen hasteko hartu duen konpromisoa. Hiru urte barru gazteria politiketan lan egiteko marko teoriko eta egituratua izan nahi dugu, lan dinamika propioaz eta erabat autonomoa". Planak hiru urteko iraupena izango du. Aurten egingo dira lehenengo azterketak eta aurreikusten da 2011 irako proiektua amaitzea. "Ordurako gazteria arloak lantzeko beharrezkoak dituen giza baliabide, baliabide material zein espazialak izatea espero dugula".

PROIEKTUAK ERAGIN HANDIA IZANGO DU

Batez ere, Bergarako haur, nerabe eta gazteengan izango du eragina planak. Azken galdeketa eta datuen arabera, Bergaran 0-30 urte bitarteko 4.124 herritar daude, eta batez ere, horiek jasango dituzte planaren ondorio eta onurak.

Guztira planak zazpi fase izango ditu eta dagoeneko aurre-diagnosia eta lan proposamena landu dira. Bigarren fasean lan proposamen hori garatuko da, hirugarrenean egin beharreko lanaren ebaluazioa egingo dute Udal ordezkariak. Gero, 2010eko lan plana egin, bigarren lan proposamena garatu eta ebaluatuko da, eta 2011n hirugarrena. Azken fasean hiru urteko balorazioa egingo du Udalak eta ondorioak argitaratuko ditu.

Hasieran Foru Aldundiaren Gazteria Zuzendaritzarena izango da planaren garapenaren ardur nagusia eta poliki-poliki ardur hori Udalak hartuko du. Izan ere, Udalaren asmoa da 3 urteko epean lanaren %100 bere gain hartzea.

AURTENGO HELBURU NAGUSIAK

Lehenengo urteko asmo nagusiak dira Gazteria batzordea sortu, teknikariak hezi eta haien funtzioak jaso



Bergarako nerabeak kalean.

	0-5 urte	6-12 urte	13-18 urte	18-29 urte	Guztira
Neskek	326	441	267	935	1969
Mutilak	360	476	305	1014	2155
Kopurua	686	917	572	1949	4124

0-30 urte bitarteko bergararren kopurua.

eta definitu. "Horretarako ildo estrategikoa definitu behar da eta gazteria politikak jasoko dituen dokumentua egingo dugu", dio Minguezek. Era berean, sustapen programa landuko du Udalak, eta besteak beste, entsegu lokalak egingo ditu eta haien funtzionamendua arautuko du nerabe eta gazteekin elkarlanean.

Gainera, gazteen gaineko Udal informazioa hobeto aztertzeke asmoa dago eta gazte informazio bulegoari dagokionez, haren funtzioak berriro aztertuko dira. "Haur, nerabe eta gazteria gaietarako interesekoak izan daitezkeen koordinazio gune eta bide iraunkorrak sortu nahi ditugu, eta aldi berean, gazteria batzordearen funtzionamendua aztertu eta egokitu behar dugu." Era berean, gazte txoko definitu eta martxan jartzeko asmoa du Udalak 2009ko abendurako".

EL AYUNTAMIENTO DE BERGARA PROMUEVE UN PLAN PARA DAR RESPUESTA A LAS NECESIDADES DE LOS JÓVENES

El Ayuntamiento de Bergara con la colaboración de la Dirección de Juventud de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha puesto en marcha un plan ambicioso para dar respuesta a las necesidades reales de los jóvenes de la localidad. El plan, que se elaborará en los próximos tres años, pretende definir las políticas respecto al segmento de población de entre 0-30 años, utilizando nuevos criterios y mejorando los actuales servicios.

Los responsables municipales contarán para ello con la asesoría y la financiación de la Dirección de Juventud de la Diputación. Ambas entidades invertirán unos 50 mil euros durante este año y otros 100 mil en los próximos tres.



GALDERAK

¿Sellevará a cabo la ampliación de la residencia de la tercera edad de Mizpirualde?

La ley de residencias que pronto entrará en vigor exige al Ayuntamiento de Bergara realizar reformas y varios cambios en Mizpirualde. El Ayuntamiento está trabajando junto a la Diputación Foral de Gipuzkoa entorno al proyecto existente sobre la residencia de la

tercera edad. Tenemos entre manos más de una opción y en breve, posiblemente este otoño, daremos a conocer los resultados de los trabajos realizados, y la opción por la que apuesta el Gobierno municipal. Nuestro objetivo es realizar las reformas y causar la menor molestia posible a los usuarios.

Agurne Barruso / Alkatea



Eskainiko da zinema komertzialik Zabalotegi aretoan?

Zinema emango bada ere, askotariko film saioak eskainiko dira zabalotegi aretoan, baina zinema komertzialik ez da eskainiko. Kontua da aretoa ez dela egokitu 35 mm-ko zinema tradizionala emateko. Zabalotegi aretoaren obrak hasi zituztenean ez zen aurreikusten zinema tradizionalik eskaintzea, eta Udal Gobernu berriak hausnarketa sakona egin badu ere, ez du egokituko aretoa horretarako. Teknikari ezberdinen iritziak jasota, inork ez digu gomendatu aretoa zinemarako egokitzea, obra gehigarria eskatzen zuen instalazio aldetik eta horrek suposatzen duen inbertsioa, aretoak duen dimentsiorako ez dela proporzionala ikusi dugu.



Ondorioz, filmak emango dira, baina DVD formatuan.

Enara Minguez / Kultura zinegotzia

Txakur kakak jasotzeko Pipi Canak jarriko ditu Bergarako Udalak?

Herriko lorategietan eta kalean hainbat txakur kaka egoten direla ikusirik, herriko errealitatea aintzat hartuta Udal Gobernuak txakurrak kaka egin dezaten hainbat gune jartzeko asmoa dauka herrian, txakurrek bertan kaka egin dezaten, eta horrela lorategietan sartzea

debekatuko zaie txakurrei. Gure asmoa da ordenantza aldatzea, eta txakurrei lorategietan sartzea debekatuko zaie. Txakurren ugazabek ez baldin badute arau berria betetzen, isunak jasoko dituzte. Txakur kakek, begibistako arazoak sortzeaz gainera, lorazaintza zerbitzuan lan egiten duten langileei ere kalte ugari sortzen dizkiete.

Enara Minguez / Kultura zinegotzia



Bergarako Udalak badu Santa Ana parkean zerbait egiteko asmorik?

2008ko aurrekontuetan aurreikusita daukagu Santa Ana parkerako diru-partida bat. Parkea txukuntzea da gure asmoa eta horrek zera esan nahi du: dauden bidetxoak konponduko ditugula eta bertan dauden eserlekuak eta herri altzariak zaharberrituko ditugula. Santa Ana parkeak ez du

gaur egungo itxura aldatuko, dagoena konpondu eta txukuntzea da gure asmoa. Parkea ederra da eta oraindik eta gozagarriagoa jartzea da gure helburua. Bidea asfaltatu egingo dugu irisgarritasuna bermatzeko aldera eta zintarriak kenduko ditugu Usondo parkean dagoen bezala. Gainera, eserlekuak, zakarrontziak eta argiak jarriko ditugu.

Agurne Barruso / Alkatea



Galderak jasotzeko aldizkaria@bergara.net helbidean edo udaletxe atariko postontzian.

Ez da komeni 200 karaktere baino gehiagoko galderak bidaltzea. Galdera guztientzat lekurik ez bada, hurrengo zenbakirako gordeko dira.



Aurtengo San Martin jaietan ikasi dugu errezeta

Bergarako San Martin Agirre jaiak bukatu berritan, iritsi da balorazioa egiteko ordua. Atzera begira jarri, zerk funtzionatu duen ikusi, eta hurrengo festetarako hobetu beharrekoen nota hartu.

Oro har herritarrek jaietan izan duten partehartzea txalotzekoa da. San Martin plazan gauero egin diren dantzaldietan giro goxoa antzeman da. Egia da Bergarako plaza handia eta ederra dela, eta horrek bere arriskua ere baduela. Alegia, handitasun horrek plazara hurbildutako jendea beregain hartzea, giroa hoztuz. Baina ez da aurtengo San Martin jaietako kasua izan. Seguru plaza girotzeko ahalegin horretan txosna jartzeak ere zeresan handia izan duela.

Kukai eta Ttanttakaren Hnuyl illa emanaldira ere erruz gerturatu da jendea. Ia 500 pertsona pilotalekuan, eta ekitaldiaren bukaeran jendearen txalo zaparrada. Badirudi herritarrek horrelako ikuskizun baten gose zeudela.

San Martin Agirre jaietan protagonismo berezia hartzen dute danborradek. Aurten sekula baino hobeto irten direla esan daiteke; bai nagusiena, baita umeena ere. Konpondu beharreko xehetasun batzuk aintzat hartu ondoren, hurrengo urtean hobeto.

Eta konpondu beharrekoen artean, ageriko pinturalehiaketa. Aurten beste urtetan baino margolari gutxiago animatu dira lehiaketan parte hartzera. Arrazoiak bilatzen saiatu behar-

ko dugu, hori ere gorabidean jar dezagun.

Hurrengo jaietarako gabon inguruan izango dugu hitzordua. Ikusi da parte hartuz gero denok irabazten irtetzen dugula. Bai norberak, gustuko ekitaldietan parte hartu eta ongi pasatuz, eta baita herriak ere, giroa bizitu egiten delako. Errezeta ondo ikasi dugu aurtengo San Martinetan. Hurrengorako ere guztiok jarriko dugu amantala, eta guztiok batera arituko gara sukaldari lanetan. Emaizta hobe irtingo denik ezin uka!

Maidar Osa

Hitza hartu Txapa Irratian!

Ez gaude 80ko hamarkadan, mugimendu sozialak aldatu egin dira, nostalgiaz begiraten dugu atzera, orduan bai! Orduan itxaropena arnasten zen kalean!

1984an Bergarako gazte batzuek beraien ideia, musikak aineratzeko, hedatzeko ideia txoraa zeukatzen buruan. Irrati bat sortu nahi zuten. Pentsatu eta egin. Baliabide gutxirekin, baina iparra argi zeukatela, Txapa Irratia sortu zuten. Irrati hark bere bidea egin du, gorabehera ugari izan ditu, istiluak, itxierak, asanblada zaratsua...

Gauregun, gazte haien ideia txoroak bizirik dirau. Txapa Irratia teknologia berrietara egokitu da, 24 orduz emititzen du beste irrati libreetako irratsaioak ere aineratuz. Askea, libreka, izaten jarraitzen du. Ez du lotura, ez politiko, ez ekonomiko, ez bestelakorik. Irratia osatzen

duten kideek erabakitzen dute irratiaeren noranzkoa.

Edozein bergararrek dauka Irratian parte hartzeko aukera; gazte edo heldu. Musika, elkarriketak, albistek, ideiak, kirola, politika, gaia bakoitzak aukeratzen du. Badira irratsaio pertsonalak, barne-barnekoak, barruak ukitzen dizkiguten musikaz hornituak. Irratsaio alaiak, taldean egiten direnak, irratia piztu eta irribarra sortzen diguten horietakoak.

Astindu lotsa, beldur eta nagiak eta hartuhitza! Bergaran, behinik behin, herritik eta herriarentzat izango den irrati bateko oinarriak sortuak daude. Etorri, aurkeztu zure irratsaioa asanbladan eta airera!


Lander Juaristi
(Txapa Irratiko kidea)

Badator Nazioarteko Txotxongiloen Mostra

Nazioarteko helduentzako txotxongiloen mostra ate jokatadator. Bederatzigarren edizioa izango da aurtengoa, eta beste behin, txotxongiloen magia Bergarako kaleetan hedatuko da. Dagoeneko adinean heldua da gure mostra, eta herritarrok ere ikasi dugu txotxongiloez gozatzeko. Gogoratzen dut lehenengo urteetan ikusleek ohitura falta genuela, erabat berria zela guretzat, harridura eragiten zigutela txotxongiloek, baina hasieratik harrapatu gintuen eskaintza hark, eta orain, sekulako gozamenak da guretzat. Mundu osoko kalitatezko

eskaintza izaten dugu Bergaran, horrelako eskaintzarik beste nonbait aurkitzea ez da erraza izango, eta herritarrok erantzuten dugu. Ekitaldi guztietan sekulako jendetza elkartzen da. Herriko kale, plaza eta tabernetan giro ezin hobe jartzen dute txotxongiloek. Kalitatezko kultura eskaintza honek, ordea, urte luzez, kalitatezko areto baten beharra izan du. Jakin dudanez, aurten, Zabalotegi areto zaharberriuan zenbait emanaldi izango dira. Pozten naiz, horrelako lekuak behar ziren Bergaran. Zorionak antolatzaileei eta urtetan lanean aritu direnei gure herrira horren eskaintza dotorea ekartzeagatik. Eskerrak kulturaren alde lan egiten duzuenoi. Nik, behintzat, txotxongiloen zitari ez diot bizkarra emango.

Andoni Goiti



Iritziak jasotzeko aldizkaria@bergara.net helbidean edo udaletxe atariko postontzian.

Ez da komeni 1200 karaktere baino gehiagoko iritziak bidaltzea. Iritzi guztientzat lekurik ez bada, hurrengo zenbakirako gordeko dira.



ELKARTEEN TXOKOA

BARRIKA JOTZAILEEN EMAKUMEEN KONPAINIA

Barrika Jotzaileen Konpainiarekin San Martinetako danborrada biziago eta alaiago



Barrika Jotzaileen Konpainia San Martin Agirre plazan.

Iazko arrakastaren ondoren, aurten ere Barrika Jotzaileen Konpainiak San Martinetako danborradan parte hartu du. Konpainia berezia da; izan ere, emakumeek soilik osatzen dute. Bergarako 30 eta 50 urte bitarteko hainbat emakumek, hain justu ere.

Danborrada ekitaldi berezia izaten da San Martinetan. Azken urteotan, ordea, Debagoieneko beste zenbait herritan gertatu den bezala, danbor hotsek ez dute horrenbeste jende erakarririk, eta ez du garai bateko jarraipenik izan. Joera hori aldatzeko asmoarekin, Pello Garitanok beste hainbat lagunekin batera lan handia egin du, eta lan horri eskerrak Barrika Jotzaileen Konpainia sortu da, emakumez osaturikoa. Iaz parte hartu zuten aurrenekoz danborradan eta aurtengoa bigarren aldia izan da.

ROSA NARBAIZA ZUZENDARI

Orain urte batzuk zenbait emakumeri proposamena egin zien Pello Garitanok danborradan parte hartzeko. "Hasierako eskaria aspaldi iritsi zitzaizen herriko zenbait emakumeri, ea danborradako banderadun izan nahi zuten esan zieten orduan. Orain bi urte proposamena gauzatu eta danborradan irten ziren, eta iaz niri proposatu zidaten Barrika Jotzaileen Konpainiako zuzendaritza hartzeko, eta baietz esan nuen. Ideia ona iruditu zitzaidan. Emakumeen konpainia sortu eta iaz ekin genion barrika jotzeari. Serio hartzen dugu gure egitekoa eta entseguetan igarri egiten da". Rosa Narbaizak zuzentzen duen Konpainiak irailaren 1ean ekin zion danborradaren prestakuntzari. "Danborrarekin alderatuta askoz biziagoa da barrika, nota



LA COMPAÑÍA DE BARRILES SÓLO PARA MUJERES

Desde hace dos años la Tamborrada de las fiestas en honor a San Martín cuenta con una nueva Compañía dirigida por Rosa Narbaiza. Se trata de la Compañía de Barriles, donde toman parte sólo mujeres de entre 30 y 50 años de Bergara. "Hace varios años les propusieron a unas bergaresas salir como abanderadas y hace dos se formó la compañía de mujeres. Queremos darle un nuevo impulso a la Tamborrada y que la gente se divierta con nuestros sonos". Cuenta Rosa Narbaiza que la compañía que ella dirige se ha tomado muy en serio la participación en la fiesta.

Bergarako 30 eta 50 urte bitarteko hainbat emakumek osatzen dute

bizkorrak ditu eta soinu zorrotzagoa. Horren ondorioz, entsegu gehiago egin behar izaten ditugu". Barrika jotzaileen konpainiako zuzendariak jakinarazi digunez, lehenengo entseguak konpainiakoek bakarrik egiten dituzte, ondoren, danborradako gainerako konpainiekin bat egiteko.

Urtero hiru piezajo behar izaten dituzte, San Martinen omenekoak. Aurten, Artatse eta Zuloa elkartearen omenezkoak interpretatu dituzte. "Horiexekizaten dirazailenak ikasteko, berriak izaten direlako. Aurten, gainera, Zuloak 25 urte bete ditu eta berezia izan da haien martxa".

ELKARTERIK EZ, LAGUN TALDEA SOILIK

Konpainia ez da elkarte modura eratu, baina parte-hartzaileen artean sekulako giroa dago. "Gustura aritzen gara eta talde polita osatu dugu. Hori bai, gure konpainian parte hartzeko aukera mugatua da, barrika eta jantzi kopuruak mugatzen duelako konpainia". Rosa Narbaizak gaineratu digunez: "Iaz, banderadunek eta barrika jotzaileek elkarrekin afaldu genuen eta banderadunei horrenbeste gustatu zitzaizen guk jarritako giroa, haiek ere konpainian sartu nahi izan dute".

Geroago eta gusturago lanean segitzeko asmoa dute barrika jotzaileek eta datozen urteetan herriko giroa alaitzeko asmoa argi erakutsi dute aurtengo danborradan ere: "Datorren urtean indarberrituta itzuliko gara".



BERGARAKO GASOLINDEGIAK GOGOAN

Herri barruko gasolindegia, Bergarako historiaren lekuko

Gaur egun herrian ditugun gasolindegia hirigunetik kanpo daude eta sinestezina izango litzateke Bergarako kaleetan bertan gasolindegi bat izatea. Argazkietan ikus dezakezueenez eta bergarar askok gogoratu duzueenez, ez horrenbeste denbora, San Antonion eta Ariznoa plazan gasolindegia zeuden.

Bergaran izan genuen lehenengo gasolindegia Ariznoa plazan zegoen, gaur egun epaitegia dagoen tokian. Dagoeneko 1933rako bazegoen gasolindegia Ariznoa plazan. San Antonioko gasolindegiari dagokionez, 1937an Campsak gasolina-hornigailua jartzeko baimena eskatu zion Bergarako Udalari eta eskaera onartu egin zen. San Antonioko surtidoreak bizitza luzea eduki du, eta 1966tik aurrera Bergarako Udala eta Campsa harremantant jarri ziren gasolina-hornigailua beste toki batera eramateko. Halere, urte batzuk geroago arte itxaron behar izan zuen San Antonioko gasolindegia lekuz aldatzeko, eta hori 1973tik aurrera gertatu zen. Izan ere, Bergarako Udalak urte hartan eman zion gasolindegiaren jabeari jarduera eteteko baimena.

SAN LORENTZON, ZUBIAURREN ETA ARRURIAGAN

Gaur egun ezagutzen dugun San Lorentzoko gasolindegia zabaltzeko baimena Madrilgo BEST enpresari eman zion Udalak 1965ean. Orduetik hona berrikuntzekin izan bada ere, betiko lekuan mantendu da gasolindegia. Bi horiez gain, Zubiaurre 25ean ere izan zen urtetan surtidore bat eta Arruriagan, La Vergaresa-ren autobus geltokian beste bat.



San Antonioko gasolindegia (Bergarako Udal Artxiboko Bilduma, M.A. Elkoroberezibar fondoa)



San Antonio, 50eko hamarkada (Lorentzo Laskurain)



Ariznoa plaza, 50eko hamarkada (Alfredo Gonzalez)

Dagoeneko 1933rako bazegoen gasolindegia Ariznoa plazan

Era berean, hainbat eskaera izan dira Bergaran gasolindegia zabaltzeko. 1967an Goenbulun zabaltzeko eskaera egin zen, 1984an Murinondoko 12. poligonoan eta 1985ean Labegaraie-ta inguruetan. Eskaera haiek ez zuten aurrera egin. 1996an, berriz, Osintxungaur egun dagoen gasolindegia martxan jarri zen.

AYUDAS PARA REALIZAR INVESTIGACIONES HISTÓRICAS

El Archivo Municipal de Bergara quiere impulsar investigaciones sobre la historia de nuestro pueblo. Por ello, si alguna persona está interesada en realizar algún trabajo puede acercarse al Registro General con su propuesta, o bien puede pasar por el Archivo Municipal para solicitar más información o consultar el sitio web del Archivo Municipal.


EN VENTA EL LIBRO SOBRE LA ROMERÍA DE SAN MARCIAL

El libro de la exposición sobre la romería de San Marcial está a la venta en el Archivo Municipal de Bergara. La publicación dispone de muchísimas fotografías de Bergara y los bergareses.



PLANIFIKAZIO ESTRATEGIKOA

/ ERAIKI NAHI DUGUN
BERGARAREN OINARRI /



Udal Gobernuak datozen 3-4 urteetarako planifikazio estrategikoa lantzen ari da. Hona hemen datozen urteetarako ditugun erronka nagusiak.

El Gobierno municipal está elaborando un plan estratégico para los próximos 3-4 años. Estos son nuestros principales retos.

PLANIFICACIÓN
ESTRATEGICA

/ BASE DEL FUTURO DE BERGARA /





▶ 01 Kultura plana:

Bergarak duen ondare historiko kulturala balioan jar-tzea helburu nagusia da. Turismoaren ikuspegitik eta herri-tarren erabileraren ikuspegitik landu nahi dugu. Berga-rak kultura baliabide oparoak ditu eta horiek modu ego-ki eta eraginkorrean ustiatzea da Udalaren asmo nagusia. Kultura Planaren diseinua 2008an egin nahi dugu eta horre-tarako lanean gabiltza.

Plan de cultura:

Nuestro objetivo principal es poner en valor nuestro patrimonio histórico y cultural. Queremos trabajar en estos dos ámbitos desde una visión más amplia que la meramente turística. Bergara dispone de excepcionales recursos como para sacar partido de ellos.

▶ 02 Herritarren bizi-kalitatea sustatu nahi dugu:

Bizi kalitateak arlo ugari har ditzake eta horiei guz-tiei erantzun nahi diegu.

a) Bergararron behar eta eskaeretara egokitu den kirol eta hezkuntza-eskaintza erakargarria sustatu nahi dugu.

Kirolguneen azterketa orokorra egin, eskaerak azter-tu, UNEDekin elkarlana bultzatu, eskaintza ez arautua landu, auzoetako eskola eta gela desplazatuak babestu eta hezkuntza-eskaintza hobetu. Horiexek dira helburu nagusiak.

b) Integrazio soziala, berdintasuna eta elkarbizitza bermatu nahi ditugu.

Gazteria Plan Integrala diseinatu dugu. Etxebizitza hutsen kudeaketa egokia egin nahi dugu. Etorकिन inte-grazio soziala bultzatu nahi dugu. Genero-berdintasu-nera eramango gaituen politika feminista bultzatu nahi dugu. Etxebizitza duinerako eskubidea bermatuko duten neurriak planifikatu ditugu.

Queremos impulsar la calidad de vida en Bergara:

Para ello trabajaremos en diversos ámbitos.

a) Queremos impulsar una oferta deportiva y edu-cativa atractiva y adecuada a las necesidades de nues-tros vecinos.

Realizaremos un estudio completo de las zonas deportivas, analizaremos las peticiones, impulsaremos la colaboración con la UNED, trabajaremos con la ofer-ta no reglada, apoyaremos las escuelas de los barrios y las aulas desplazadas. Esos son nuestros principales objetivos.

b) Trabajaremos por la igualdad, por la convivencia y por la integración social.

Hemos diseñado un plan integral para la juventud, realizaremos una gestión apropiada de las viviendas vacías, impulsaremos la integración social de los inmigran-tes, impulsaremos una política feminista por la igualdad entre géneros y tomaremos medidas que garanticen vivienda digna para nuestros vecinos.



▶ 03

Udalaren kudeaketa eredua:

Bergarako Udala eraman nahi dugu kudeaketa eredu aurreratuera. Ditugun baliabideen arrazionalizazioa bilatzen dugu, herritarrei ahalik eta zerbitzurik egokiena emateko asmoz. Horretarako, ditugun zerbitzuak eta antolamendua aztertu eta hobetu nahi ditugu. Bestalde, herriarentzat probetxagarriena izan daitekeen harreman-sarea osatu nahi du Udalak. Azkenik, atal honetan komunikaziorako teknologia berrietan ere murgildu nahi dugu Bergarako Udala.

Nuevo modelo de gestión municipal:

El Ayuntamiento de Bergara pondrá en marcha un nuevo modelo en la gestión municipal, con el objetivo de dar respuestas adecuadas a los ciudadanos. Para ello, estamos realizando una nueva organización municipal y mejoraremos nuestros servicios. Por último, queremos integrar en el Ayuntamiento nuevas tecnologías para la comunicación.

▶ 04

Ingurumena eta iraunkortasuna bultzatu:

Herriko lehen sektorearen (nekazaritza) biziraupena bermatzeko neurriak hartzea proposatzen dugu, eta horietara bideratutako ekimenak bultzatzea da gure asmoa. Honekin batera, Agenda 21ean ezarritako ildo estrategikoak garatu behar ditugu ingurumenarekiko eragin negatiboa murrizteko.

Impulsaremos la sostenibilidad y el medio ambiente:

Estamos tomando medidas para la supervivencia del primer sector en nuestro pueblo. Además, pondremos en marcha las líneas estratégicas de la Agenda 21.





▶ 05

Herritarren partehartzea:

Bergararrok herriko bizitzan partehartzea lan-sistema gisa antolatu nahi dugu. Orain arte esperientzia puntualak garatu ditugu, baina lanerako sistema landu nahi dugu parte-hartze jarraitua, sistematikoa eta egituratua izan dadin.

Participación ciudadana:

Queremos impulsar sistemas de participación ciudadana para que los bergarreses tomen parte en la vida municipal. Hasta ahora hemos puesto en marcha iniciativas puntuales pero en un futuro próximo realizaremos un plan más sistemático y estructurado.

▶ 06

Euskararen erabilera bultzatu:

Euskararen alorrean, Bergara euskaraz biziko den herria izateko bitartekoak jarriko ditugu, euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatuz eta Bergarako euskalkia sustatuz.

Impulsar el euskera:

Trabajaremos en y por el euskera, para que en Bergara podamos vivir en nuestro idioma.





HIRIGINTZA

DOMINGO DE IRALA

Abierta a los peatones la calle Domingo de Irala



Las obras de urbanización de la calle Domingo de Irala han concluido en septiembre y los bergareses y bergaresas ya pueden disfrutar de un nuevo espacio abierto. Durante el mes de agosto ha habido problemas de abastecimiento de material e incluso algún robo del mismo, y por todo ello la finalización de la obra se ha alargado dos semanas. La nueva calle Domingo de

Irala será un espacio abierto al ocio y para el disfrute de los bergareses/as.

TRABAJOS DE JARDINERÍA

De todas formas todavía no han concluido todos los trabajos, en octubre se abrirán los baños públicos y en noviembre se realizarán las labores de jardinería y se adecuarán los espacios verdes.

MUGIKORTASUN PLANA

Urtea amaitu aurretik mugikortasun plana diseinatuko du Udalak

Aparkalekuen arazoari eta alde zaharrean oinezkoek paseatzeko dituzten zailtasunei konponbidea bilatu nahi die Bergarako Udalak. Era berean, mugikortasun iraunkorrak eragiten dituen arazoekin ere amaitu nahi da. Horri guztiari erantzun egokia emateko, Udalak mugikortasun planaren erredakzioa enkargatu dio aditua den enpresa bati. Gainera, oraingo hilean hausnarketa jardunaldia egin zuten Udal ordezkariak eta mugikortasunaren ikuspegitik arazoak jasaten dituzten herritarrek.

Besteak beste, jardunaldian elkar-tu ziren: Bergarako Udaleko teknikariak, alderdi politiko guztietako ordezkariak, Ingurumen batzordeko ordezkariak, Bedelkar merkatarien elkarteak, San Joxepe elkarteak, Aspacekoak eta baserri

auzoetako zenbait bizilagun.

Hausnarketa jardunaldian jasotako proposamen eta iritziekin mugikortasun plana diseinatuko du Bergarako Udalak urtea amaitu aurretik. Besteak beste, plan horretan jasoko dira mugikortasun iraunkorren alde egin beharrekoak.

ESKERRAK PARTE HARTZAILEEI

Bergarako Udala oso gustura dago jardunaldian parte hartu zuten herritar, elkarteetako ordezkari eta gainerrakoen jarrerarekin. Bergarako alkate Agurne Barrusoren esanetan: "Guztiok ikasi genuen jardunaldi hartan eta ideiak, iritzia eta esperientziak partekatu genituen. Seguru gaude horrelako abiapuntuarekin etorkizun opa-roa duela iraunkortasunak Bergaran".

LABURRAK

Datozen hiru hilabeteotan lanak egingo dituzte San Pedro kalean

Bergarako Udalak Bedelkar merkatarien elkartearekin elkarlanean alde zaharra potentziatu nahi du. Udal ordezkarien esanetan, herriaren muina izan denak indar eta protagonismo handia galdu du azken urteotan eta indarberritu beharra dago. Agurne Barruso, Bergarako alkatea: "Herriaren bihotza zona berrietara aldatzen ari da, eta nolabait zona berriekin protagonismoa partekatzea da gure helburua. Horretarako, alde zaharra birgaitzen joatea ezinbestekoa delakoan gaude. Ildo horri jarraituz egingo da San Pedro kalea konpontzeko obra".

Artekaleren zaharberritze lanek izan duten tratamendu antzerkoko izango du San Pedro kaleak ere. Lanak irailaren 22an hasi zituzten eta hiru hilabeteko iraupena izango dute. Bestalde, obra horren exekuzioarekin batera, Udal agintariak alde zaharreko PERI deiturikoa enkargatu diote Udal arkitekto aholkulariari. Alegia, Alde Zaharraren Birgaitze Integralerako Plan Berezia. Agurne Barrusoren iritziz: "Gure identitatearen ardatz nagusia da alde zaharra eta birgaitzearekin bere tokia hartuko duen itxaropena dut".



2008-2009 IKASTURTEKO KIROL BERRIKUNTZAK

Berrikuntza ugari herriko kirol-instalazioetan



Ikasturte berriaren atarian Bergarako Udalak kirol-instalazio berriak estreinatuko ditu. Era berean, berrikuntza ugari eta aldaketa inportanteak egin dituzte aurretik zeudenean. Abuztuan eginiko lanen ondoren, guztia prest du Udalak eta gertu bergarrek aprobeitza ditzaten.

IPINTZA UDAL FUTBOL ZELAIA

Zaharberitze lan nagusiak Ipintza Udal futbol zelaian egin dira. 90 metro luze eta 53 zabal den harri txingorreko zelaia azken belaunaldiko belar artifizialez estali da. Bitxikeria modura azpimarratu behar da belar hau monofilamento motakoa dela eta belar hostoek filamento berezia dute irla irmo eta zut mantentzeko.

Bertaratu eta ikusi baino ez dago. Ikusle zorrotzaren begiei arreta piztuko dien beste gauza bat marrak izango dira. Marra zuriz futbol zelai handiaren dimentsioak pintatu dituzte, zazpiko futbol zelaiaren neurriak horiz eta berrikuntza bezala softball zelaia urdinez pintatu da.

Teknikoki deigarriak dira ureztatzeko sistema, 40 metro luze txorrota jaurtitzeko duten 6 ur kanoiak eta argiztapen dorreak, 20 metroko garaierakoak. Lanok egin ditu Amnabar eraikuntza etxeak eta 790.000 euroko kostua izan dute.

LABEGARAIETA KIROLDEGIA

Labegaraietako kiroldegian ere zenbait berrikuntza egin ditu Udalak. Besteak beste, lurra lixatu, bernizatu eta berriro pintatu dute. Pintaketa berriarekin kantxa nagusia hiru herenetan banatu da. Zati bakoitzean eskola kiroleko eskubalo, saskibalo eta futbol txikiak jokatu dira. Era berean, aldetik aldera bi herenetan saskibalo kantxa bi ere markatu dituzte.

Bestalde, jaso daitezkeen ateak edo porteriak jarri dituzte. Horiekin batera, saskietarako sistema berezi bat ezarri da saski bereko taulak igo eta jaitsi ahal izateko, horrela saskibalo handi eta txikiak jokatu ahal izateko. Inbertsioa izan da 36 mila eurokoa.

2008ko inbertsioak	
Ipintza futbol zelaia	790.000 euro
Labegaraietako kiroldegia	36.000 euro

2009ko egitasmoen aurreikuspena	
Ipintza futbol zelaiaren aldagelak	Urtea amaitu aurretik
Kanpoko igerilekuak	Ekainerako erabilgarri

LABURRAK

Igeriketa Lantzen SL enpresak kudeatuko du Agorrosingo kirol eskaintza

Gipuzkoako Igeriketa Federazioetik sortutako enpresa da Igeriketa Lantzen SL, eta Bergarako Udalak lehiaketa bidez kontratatu du lehorreko zein igerilekuko kirol eskaintza kudeatzeko. Enpresaren xedea da kirol zerbitzuetako etekinak herriko eta eskualdeko kirol egituretan bertan inbertitzea. Horretarako, Bergara Igeri Taldearekin eta Debagoiena Igeri Taldearekin hitzarmenak sinatuko ditu babesletza ekonomiko eta tekniko eskaintzeko.

Kirol aktibitateak irailaren 29tik aurrera

Kirol ekintzetan parte hartzeko izenemate epea irailaren 11n amaitu zen. Zozketa, berriz, irailaren 22an egin zen, eta ikastaro zein kirol ekintza guztiak irailaren 29an hasi ziren. Informazio gehiago nahi izanez gero, Agorrosingo bulegoan, 943.777.095 telefonoan edo agorrosin@bergara.net helbidean.

Bergarako Udalak eta pilota taldeak hitzarmena sinatuko dute

Pilota taldeko zuzendaritzak aro berrietara egokitu eta euskal pilotako egiturak eta oinarriak indartzeko asmoz, kirol proiektu berri bat martxan jarriko du. Proiektu honek bat egiten du Debagoieneko kirol zerbitzuetako elkarregintza egitasmoarekin. Bertatik teknikari bat etorriko da hausnarketa eta egitasmoetan lagun dezan. Proiektuko lehen urratsetako bat Udalaren eta pilota elkartearen arteko hitzarmena izango da. Hitzarmen berriari esker, Udalak pilota elkartari baimena emango dio Udal pilotalekuan elkartari laguntza emango dioten babesleen publikitate estatikoa jartzeko.

KIROLA



KULTURA

TXOTXONGILOEN MOSTRA

Guztia prest txotxongiloen nazioarteko mostrarako



Urriaren 2tik 5era bitartean txotxongiloak izango dira nagusi Bergarako kale eta aretoetan. Nazioarteko helduentzako txotxongiloen mostrak askotariko eskaintza ekarriko du Bergarara.

Frantzia, Argentina, Katalunia, Peru, Australia, Asturias, Valentzia eta Euskal Herriko txotxongilo taldeek esku hartuko dute mostran. Askotariko eskaintza izango da guztion gozamenerako. Ez da umorerik faltako, ezta amodiozko istoriorik ere. Gainera, Asiako arteak, poesiak eta

musikak ere izango dute tarte helduentzako txotxongiloen erakustaldian.

KALEETAN ETA HERRIKO ARETO ETA TABERNETAN

Txotxongiloen mostra urriaren 2an hasiko da Diego Stirmanen eskaintzarekin. Frantziatik eta Argentinatik dator Diego Stirman, eta Zabalotegi aretoan eskainiko du bere lana iluntzeko zortzietan. Hain justu ere, Zabalotegi aretoan, zaharberritze lanen ondoren egingo den lehenengo ekitaldia izango da hori.

Gainerako emanaldiak, guztira 13, herriko kale, plaza, taberna eta gaztetxean izango dira. Urriaren 3an, Iñaki Mataren *Barreras* lana ikusteko aukera izango da kalean zehar, 18:00etan. Egun horretan Zabalotegi aretoan, gaztetxean eta Pol Pol tabernan ere izango dira ikuskizunak.

Urriaren 4an, San Martin plazan, Munibe plazan, Arizondo parkean, Zabalotegi aretoan eta gaztetxean egingo dira ekitaldiak egun osoan zehar, eguerdiko 12etatik gauerdira arte. Urriaren 5ean, berriz, Kataluniako Trastam taldeak emango dio amaiera txotxongiloen mostrari *Las cosas de la vida* lanarekin.

LEHIAKETA

Abian da film laburren lehiaketa

Bergarako Udaleko Kultura Sailak ikus-entzunezkoen hirugarren lehiaketa antolatu du. Lanak azaroaren 3a baino lehen entregatu beharko dira Bergarako kultura etxean. Film laburren gaia librea izango da eta estiloa ere bai.

ONDO IDENTIFIKATUTA

Parte hartzaileek DVD formatuan eraman beharko dute film laburra kultura etxera eta ondo identifikatuta

egon beharko du. Lanaren izenburua, iraupena eta produkzio urtea jarri beharko ditu azalean, eta barruan autore edo autoreen izen-abizenak, helbidea, NA zenbakia eta gainerakoak jarri beharko dira.

Sari banaketa azaroaren 28an egingo da Zabalotegi aretoan, eta sariak honakoak izango dira: irabazlearentzat 400 euro eta bigarrenarentzat 300. Gainera, bergarar onenak ere jasoko du saria, 150 eurokoa.

LABURRAK

Bigarren artisau azoka Gabonetan

Gabonetan bigarren Artisanu azoka egiteko asmoa du Bergarako Udalak. Iazko azokaren arrakasta ikusirik, Udal ordezkariak bigarren edizioa antolatuko dute. Abenduren 19an, egubakoitzean, irekiko ditu ateak eta abenduaren 24ra arte egongo da zabalik. Udalak datozen egunetan aterako du azokan parte hartzeko baldintzen plegua, eta batzorde batek erabakiko du aukera ezberdintasuna bermatze aldera. Artisanu azokan askotariko produktuak erosteko eta ikusteko aukera izango dute bergararrek eta bertara gerturatuko direnek.

Urrian irekiko dute berriro Zabalotegi aretoa

Zaharberritze lanen ondoren, nazioarteko helduen txotxongilo mostrarekin irekiko dute berriro ere zabalotegi aretoa. Inaugurazio ekitaldia, ordea, urriaren 20tik 26ra bitarteko astean egingo dute. Nahiz eta oraindik ekitaldiak ez dauden zehaztuta, litekeena da urriaren 24an inaugurazio ekitaldi bat egitea Zabalotegin. Eta aste guztian zehar, dantza, bertso saioak, antzerkia, pailazoak eta musika izango dira protagonista. Bergarako Udaleko Kultura Saileko ordezkariak asmoa da ahalik eta jende gehien Zabalotegira eramatea.

Askotariko ikastaroak abendura bitartean

Urriatik abendura bitartean ikastaroak egiteko aukera izango da Bergaran. Postregintza ikastaroa asteartero egingo da eta Javier Sanpietrok eskainiko du. Bitxigintza ikastaroa, berriz, ostegunetan egingo da eta Dumixe Royok emango du. Ikastaro horretan eraztunak, pultserak eta belarritakoak nola egiten diren ikasteko aukera izango da. Aretoko dantza ikastaroa ere egingo da ostiralero Estibaliz Goienetxeren eskutik. Ikastaroen prezioa 15 euro da bergararrentzat.



KALE HEZITZAILEEN PROGRAMA

Kale Hezitzaileen Programa beste hiru urtez luzatuko du Udalak

Gizarte Zerbitzuek Bergarako gazteen egoeraren azterketa egin ondoren, duela 3 urte Kale Hezitzaileen Programa jarri zuten martxan. Egitasmoak iraun duen urteetan Bergarako gazteen errealitatea hobeto eza-gutzeko aukera izan dute Gizarte Zerbitzuek eta esku hartze ezberdinak egiteko aukera izan dute.

Aurrera begira ere, Bergarako udalerrian arriskuan dauden edo egon daitezkeen gazte eta adingabeen ingurune irekiko gizarte heziketa zerbitzuaren beharra ikusi da. Hori dela eta, Udalak datozen hiru urteetan zerbitzua eskaintzen jarraituko du, bi kale hezitzailez osaturiko lantalde baten bitartez.


KALEETAN ETA HERRIKO ARETO ETA TABERNETAN

Lehenengo esku hartzeak eskola eta familia barruan kokatu ziren, eta ingurune irekiko esparruan egindako esku hartzeak gutxiago izan ziren. Dena den, datozen urteetan kalean esku hartze iraunkorra bultzatzeko premia ikusi du Udalak. Gaur egun, gazteen gizarteratze prozesuan eragile nagusia bihurtu baita kalea, gazteen arazoan babesleku eta ihesbide bilakatu.

Hain justu ere, hori izan da kalea heziketa gune bezala erabiltzeko arrazoi nagusia; hau da, arrisku egoeran dauden edo egon daitezkeen gazte eta nerabeak detektatzea eta eurekin lan hezitzailea egitea.

ESPECIES AUTOCTONAS

Se plantaran especies autóctonas en terrenos municipales



El Ayuntamiento de Bergara ha decidido plantar especies autóctonas en tierras municipales o de uso público. En este sentido, en el pleno celebrado el pasado mes de julio el Pleno de la Corporación adoptó la decisión de plantar especies autóctonas en la zona de dantzaleku, muy cerca de Ipiñarri.

Hoy día, en esa zona hay un pinar plantado hace tres años por el Ayuntamiento. Con la decisión adoptada en el citado pleno, se sacará el pino y se meterá posiblemente roble. La oposición se mostró en contra de dicha actuación ya que considera que el pino plantado es muy joven y

no es necesaria tal actuación en estos momentos en dantzaleku.

RED DE CORREDORES ECOLÓGICOS

El terreno de dantzaleku pertenece a la red de corredores ecológicos de Euskal Herria por lo que el proyecto de reforestación ha contado con la colaboración e inversión del Gobierno Vasco. Precisamente técnicos del Gobierno Vasco y responsables municipales han mantenido varias reuniones para llevar a cabo la actuación. La inversión, que correrá a cargo de la administración de Lakua, será aproximadamente de 33 mil euros.

AGENDA 21

El Ayuntamiento está a la espera de recibir el permiso de la Diputación Foral de Gipuzkoa para sacar el pino y plantar especies autóctonas. Cabe señalar, que dicha actuación se encuadra en el marco estratégico de la Agenda 21.

LABURRAK

Bidegorria Ozetatik Agorrosinera

Begarako Udalak bidegorria egin nahi du Ozetatik Agorrosinera igerilekuetara. Gaur egun, bada-gu bide bat, eta bide hori oinezkoentzat eta bizikletazaleentzat egokitzeko asmoa du Udaleko Ingurumen Sailak. Kontuak kontu, LKS enpresari aurreproiektu bat egiteko eskatu dio Udalak, eta dagoeneko LKS egin du bidegorri berriaren egokitzapen proiektua. Orain, Udalak Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskaria egingo dio proiektua abian jarzete.

Helduen jolaslekuak Laskurain pasealekuan

Begarako Udalak nagusientzat ariketak egiteko gunea eraikitze asmoa du Boni Laskurain pasealekuan. Helburua da ariketa fisikoaren bitartez adineko herri-tarren bizi kalitatea eta egoera fisikoa hobetzea edo mantentzen laguntzea. Jolaslekua Boni Laskurain pasealekuan egingo dute, nahiz eta oraindik kokapen zehatza ez den erabaki. Eraikuntza lanak eta epeak ere oraindik zehaztu gabe ditu Bergarako Udalak.

Ikastaroak

Udaleko Enplegu Zerbitzuak industria elektrizitate arloan lan prestakuntzarako ikastaroa antolatuko du, 355 ordukoa. Ikastaroa lanik gabe daudenei eskainiko zaie Miguel Altuna institutuan, irailaren 17tik abenduaren 30era.

Informatikako Windows - Word hasierako ikastaroa eskainiko da, urriaren 6tik azaroaren 7ra arte, 15:00etatik 17:00etara bitartean, Miguel Altuna institutuan. Udaleko Enplegu Zerbitzuak antolatuko du ikastaroa.

Udaleko Gizarte Zerbitzuak emakumei zuzendutako autoestima tailerra antolatuko du, Pepa Bojo psikologo eta psikoterapeutaren eskutik. Ikastaroa irailaren 22an hasi zen.

GIZART. / INGURUM.



BASERRI AUZOAK / EUSKARA

AUZOAK/EUSKARA

BASERRI BIDEAK

Baserri bideak konponduko ditu Udalak Uberan eta Angiozarren


Baserri bideak konpontzeko eta berriak egiteko asmoa du Bergarako Udalak datozen hilabeteotan Angiozar eta Ubera auzoetan. Hain justu ere, Angiozarren bide berria egingo dute Elixamendira. Zati txikia da asfaltatuko dutena. Era berean, bazterrak txukunduko dituzte.

Konponketa lanak, berriz, Ubera auzoko Agerre eta Anduri baserrietara doan bidean egingo dituzte. Bidea erabat hondatuta dago zati askotan eta arazoak sortzen dizkie baserritarrei egunerokoan. Gainera, euria egiterakoan, oso labainkor eta arriskutsu izaten da.

Gainera, etorkizunera begira beste zenbait bide egingo dituzte Angiozar auzoan. Horietako bi aurten edo datorren urtean egingo ditu Bergarako Udalak.

ZENBAIT BASERRITAKO UR HORNIDURAK HOBETU

Bideak bakarrik ez, ur hornidura hobetzeko helburua ere badu



Begarako Udalak. Horrela, herriko sarera lotuko dituzte honako sare hauek: Mekolalde gunea, Lesarriak eta Santalde-Pleixos-Martoko-etxeberri inguruak.

Ur hornidura hobetzeko lan gehienak edo garrantzitsuenak 2008an egin nahi ditu Bergarako Udalak.

BERPIZTU PROGRAMA

Angiozar auzoan Berpiztu programaren lehenengo fasea abian jarri dute



Baserri auzoak suspertzeko eta berpizteko programa da Berpiztu. Bergarako Udalak Elosun, Uberan eta Angiozarren jarriko du martxan egitasmoa.

Hain justu ere, lehenengo fasea burutu dute Elosun eta Uberan, eta

auzotarrei aurkeztu dizkiete ondorio nagusiak. Fase horretan baserri auzoen gaineko datuak batu dituzte eta diagnosis egin dute.

Auzkezpenak egin ondoren datuak aztertuko dituzte, eta hartu beharreko hobekuntza neurriak hartuko ditu Bergarako Udalak. Angiozarren ere dagoeneko hasi da lehenengo fasea, eta laster egingo dute bilera Udal ordezkariak eta auzotarrak.

Elosu auzoari dagokionez, Azkoitiko Udalak ere parte hartuko du Berpiztu programan. Izan ere, auzoa bi udalen menpe dago. Lehenengo fasea gaindituta ekintza plana eta ondorengoak bi udalek garatuko dituzte.

LABURRAK

Elosuko feria urriaren 12an egingo da

San Martingo feria igarota, non barazki, fruta eta gazta lehiaketak egin ziren, Elosuko feria egingo da urriaren 12an. Elosuko ferian ganadua izango da nagusi. Aipatu bi feria horietan Bergarako Udalak laguntza eskaintzen die antolatzaileei.

Udalerriaren euskararen erabilera sustatzeko UEMAn sartu berri da Bergarako Udala

Begarako Udalaren apustua da euskararen alde lan egitea eta erronka hori errealitate bihurtzeko UEMAn (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) sartzea erabaki du. Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela aldarrikatzen dute UEMAn dauden udalerriek eta euskararen bizi iraupenerako egitasmoak bultzatzen dituzte.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen helburu nagusia da erdarek betetzen dituzten funtzio guztiak euskararentzat eskuratzea. Hau da, gaztelania eta frantsesa beharrezkoak ez izatea normaltasun osoz bizi ahal izateko, eta euskara izatea lanerako eta harremanetarako tresna edo hizkuntza bakarra.

UEMAren zeregina litzateke, hortaz, bideak zabaltzea udalerri euskaldunen eguneroko bizitzari, herriko sektore guztietan -etxean, lagunartean, kalean, administrazioan, merkataritzan, ekonomian, zerbitzuetan...- normaltasun osoz euskaraz bizi ahal izatea.

Begarako Udala ekainean sartu zen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean. Hain justu ere, ekainaren 14an ospatu zen UEMA eguna Azpeitian.



UDALBATZARRAK

Bergarako Udaleko osoko bilkuretan azken hilabeteotan hartu diren erabaki garrantzitsuenen zerrenda.

2008KO EKAINAREN 30EKO UDALBATZARRA

- **KARGU HARTZEA** Maite Guridi EAJko zerrendako kideak bere zinegotzi-kargua hartu zuen Belen Abarzuza zinegotziak dimititu ondoren.
- **DOHAINTZA** Juan Idigorasek eta bere seme-alabek Udal Artxiborako egindako argazkien eta beste materialen dohaintza onartu zuen udalbatzak, aho batez.
- **ARGITALPENA** Orain arte Udalak atera duen gura-soentzako *Aurrera begira* aldizkaria 2009tik aurrera Debagoieneko Mankomunitateak argitaratzeko akordioa hartu zuen udalbatzak, PSOEko zinegotzien abstentzioarekin eta gainontzekoen aldeko botoekin. Aldizkari bera eskualde-mailan aterako da datorren urtetik aurrera.
- **BERGARAKO BIHARGINTZA** Ipintza futbol zelaiko lursailaren jabetasuna Bergarako Bihargintza 98, SAre esku doan jartzea erabaki zuen udalbatzak aho batez. Bergarako Bihargintza 98 Udal-enpresa da eta bera da Agorrosingo obra guztiak kudeatzeaz arduratu dena.
- **ONARPENA** Bergarako Udal Pilotalekua kokatuta dagoen eraikineko fatxada konpontzeko Udalarri dagokion 20.871,79 euro ordaintzea onartu zuen udalbatzak aho batez.
- **HIZKUNTZA ESKAKIZUNA** Udaleko zenbait lanpostuk dituzten hizkuntza eskakizunak aldatzea erabaki zuen udalbatzak aho batez.
- **UDAL LANGILEAK** Udaleko langileen zerrenda berria onartu zuen Udalbatzak aho batez.
- **EROSKETA** Elosu auzoan *Aundi Partia* deitutako lursaila 34.000 eurotan erostea onartu zuen udalbatzak aho batez. Erosketa hau bere osotasunean finantzatzen da Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntzarekin.
- **MOZIO ONARPENA** Amnistiaren Aldeko Mugimenduen aurkako 33/01 auziaren inguruan herritar batek aurkeztutako mozioa onartu zuen udalbatzak, Gobernuko 9 zinegotzien aldeko botoekin eta oposizioaren aurkako 8 botoekin.
- **EUSKAL UNIBERTSITATEA BERGARAN** Euskal Unibertsitatearen aldeko adierazpena eta beronek fakultate bat Bergaran jartzeko aukeraren aldeko apustua onartu zuen udalbatzak, PSOEren abstentzioarekin eta gainerako zinegotzien aldeko botoekin.
- **UEMA** Bergara Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko erabakia hartu zuen udalbatzak, PSOE eta EAJ-PNVko zinegotzien aurkako botoekin eta Gobernuko 9 kideen eta EAko zinegotziaren aldeko botoekin.

- **MOZIOAREN ONARPENIK EZA** *Euskal Herrian demokrazia 0* izenburua zeraman eta herritar batek aurkeztutako mozioa ez da onartu udalbatza osatzen duten 11 zinegotzik aurkako botoa eman dutelako eta aldekoa 6k.

- **MOZIO ONARPENA** Etorkinak kanporatzeko onartu den Europar Zuzentasunaren aurka herritar batek aurkeztutako mozioa onartu zen, PSOEren aurkako botoekin eta gainontzeko zinegotzien aldeko botoekin.

- **ARAU SUBSIDIARIOA** Arau Subsidiarioen A-43 arako 43-1 exekuzio-unitatearen xehetasun azterlanaldutuari behin betiko onarpena eman zion udalbatzak aho batez.

2008KO UZTAILAREN 16KO UDALBATZARRA

- **PLAN OROKORRA** Plan Orokorraren hasierako onarpeneko dokumentazioari ezarritako alegazioen erantzuna eta funtsezko aldaketan proposamena onartu zuen udalbatzak aho batez. EAJ-PNV eta EA Zabalotegi eta Bolu lotuko zituen errepide berria kentzearekin ados ez zeudela azaldu zuten.
- **KONTU OROKORRAK** 2007ko kontu orokorra onartu zuen udalbatzak aho batez.
- **EROSKETAK** Obra eta zerbitzuetarako furgoneta bat eta todoterreno bat eta Udaltzaingoarentzat beste auto bat erosteko baldintza-plegua onartu zuen udalbatzak aho batez.
- **KREDITU ALDAKETA** 2008ko aurrekontuetan bigarren kreditu-aldaketa egitea onartu zuen udalbatzak aho batez. Bigarren kreditu-aldaketa horrek 2007ko soberrakinak 2008an erabiltzea ekarri du.

2008KO UZTAILAREN 28KO UDALBATZARRA

- **UDALERRIKO EMERGENTZIA PLANA** Mahai-gainean utzi zen herrian emergentziei aurre egiteko plana, EAJko zinegotzietatik hala eskatuta.
- **GAZTERIA PLANA** Bergarako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean landutako Gazteria Plana onartu zen aho batez.
- **UDAL LANPOSTUAK** Udaleko hainbat lanposturen balorazioa onartu zen aho batez.
- **PROPOSAMEN EZ ONARTUA** Ibargarai kaleko aparkaleku irekietako plaza erosteko zozketa finkatzea eta Udalak UNEDekin duen zorra kitatzeko 24 garaje-plaza emateko proposamena ez zen onartu.

UDALBATZARRAK

KULTURA AGENDA

URRIA > AZAROA

URRIA

> URRIAK 2 - 5

NAZIOARTEKO HELDUENTZAKO
TXOTXONGILOEN MOSTRA

U.2

• Diego Stirman "Entremets"
Argentina / Frantzia
/ Zabalotegin / 20:00

U.3

• Chapertons "Goma Gom"
Catalunya

/ Zabalotegin / 20:00

• Iñaki Mata "Barreras"
Euskal Herria

/ Klean / 18:00

• La Santa Rodilla "Manologías"
Peru

/ Gaztetxean / 24:00

• Compañía Canija "La canija y
malasombra" Catalunya

/ Pol Pol tabernan / 22:30

U.4

• Richard Brashaw "Teatro de
sombas" Australia

/ Zabalotegin / 20:00

• Hortzuga "Super-plast"
Euskal Herria

/ Klean / 13:30

• De Blauwe Hond De Klein Scala
Nederland

/ Klean / 18:00

• Organik "Malditas"

Euskal Herria

/ Klean / 22:30

• Anita Maravillas "Los Sueños de
Leonor" Catalunya

/ Gaztetxean / 24:00

U.5

• Edu Borja "Te odio"

Pais Valencia

/ Zabalotegin / 20:00

• Azukillas

Asturias / Euskal Herria

/ Klean / 13:00 / 18:00

• Trastam "Las cosas de la vida"
Catalunya

/ Gaztetxean / 22:30

U.6

• (Eskolarrak) Edu Borja "Te odio"

Pais Valencia

/ Zabalotegin / 9:30 / 11:30

> URRIAK 3 / 17:00

Jolas-leku ibiltaria - Jardun

Elkarteak antolatuta

/ Simon Arrietan

> URRIAK 4 - 25

NAZIOARTEKO ORGANO
ERROMANTIKOAREN 8. ZIKLOA

U.4

Ainhoa Soraluze, mezzosopranoa.

Organo jolea Fernando Gonzalo.

/ San Pedro parrokian / 20:00

U.11

Michael Eckerle, organo jolea.

Alemania.

/ Zabalotegin / 20:00

U.18

Beasaingo Loinatz Abesbatza

organoarekin.

Zuzendaria: Xabier Sarasola.

Organo jolea: Gerardo Rifón.

/ San Pedro parrokian / 20:00

U.25

Oñatiko Ganbara Abesbatza.

Zuzendaria: Esteban Urzelai.

Organo jolea: Alize Mendizabal.

/ San Pedro parrokian / 20:00

> URRIAK 6 / 19:00

"Nola eragin seme alaben

hizkuntza jokabideetan" hitzaldia

/ Bergarako kultura etxean

> URRIAK 9 / 19:00

"Gu geu, pertsonak"

Helduentzako ipuin kontaketa

Bea Egizabal kontalariarekin

/ Aroztegi aretoan

> URRIAK 17 / 19:30

Antxon Arza-ren "bizimoduak" ikus-

entzunezkoa - Udal Euskaltegiak

antolatuta

/ Aroztegi aretoan

> URRIAK 18

Begarako merkatarien lehenengo

azoka - Bedelkar Begarako

dendarien elkarteak antolatuta

/ Udal pilotalekuan

> URRIAK 19 / 12:30

Begarako Udal Musika Bandaren

kontzertua

/ Santa Marinako parrokian

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoa

> MARI PAZ ALUSTIZA BERGARAKO MARGOLARIAREN ERAKUSKETA

urriaren 10etik azaroaren 2ra

Kultura etxea

> JON BALENTZIAGA BERGARAKO MARGOLARIAREN ERAKUSKETA

urriaren 12tik 25era

AZAROA

> AZAROA 13 / 19:00

Iñaki Kaperotxipiren Zetaren

ibilbidea ikus-entzunezkoa

/ Aroztegi aretoan

> AZAROA 15 / 19:30

Donato Goyenetxe eta Xabier

Arakoma, trikitixa eta perkusio

bikotea

/ Zabalotegi aretoan

> AZAROA 23

Begarako Udal Musika Bandaren

Santa Zezilia eguneko kalejira eta

12:30ean kontzertua Begarako

Udal pilotalekuan

> AZAROA 28

Begarako film laburren 3.

lehiaketako sari banaketa eta

filmen proiektzioa

/ Zabalotegi aretoan

> AZAROA 29 / 17:00

Angel Magoaren emanaldia

/ Osintxuko ludotekan

LEHIAKETAK

Film laburren lehiaketa

Lanak aurkezteko:

Begarako kultura etxea, 20570

BERGARA (Gipuzkoa).

Azken eguna:

Azaroaren 3a 13:00ak baino lehen.

Oinarriak:

www.bergara.net helbidean.

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoa

> MANU MUNIATEGIANDIKO- ETXEA MARGOLARIAREN ERAKUSKETA

azaroaren 7tik azaroaren 30era

Kultura etxea

Kultura etxea

Kultura etxea

> JUANJO ALTUNAREN IKASLEEN MARGO ERAKUSKETA

azaroaren 7tik 21era

ORDUTEGIAK:

• ERAKUSKETAK /

• Aroztegi aretoa / Asteartetik ostiralera: 18:00-20:30 / Larunbatetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:30 / Igandetan: 12:00-14:00

• Kultura etxea / Astelehenetik ostiralera: 18:00-21:00 / Larunbatetan: 12:00-14:00

BERGARAKO UDALA

San Martin Agirre plaza, 1

20570 Bergara (Gipuzkoa)

Tel.: 943 77 91 00

Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net